



Itziar Madina: «Larritasun eta premia egoeran gaude, memoria galtzeko zorian»

Artzainen jakituria betiko galtzen ez uztearen garrantziaz hausnartu du 'Beste eguzkia' eleberrian

JUAN LUIS ZABALA

DONOSTIA

«Behin bazen ingurua. Ingurua bada mendi ingurua, baina baita jende ingurua ere. Inguru geografiko bat eta inguru soziala. Bata eta bestea oso hurbilekoak ziren, eta bata bestea egiten zuen, eta bestea bat horretarik bizi zen; hau da, nolabaiteko sinbiosia zen naturaren eta jendearen artean. Zer gertatu da gauden XXI. mende honetan hori guztia hautsia eta ahantzia izateko?». Hitz horiekin laburbiltzen du Itziar Madinak (Cullera, Herrialde Katalanak, 1974). *Beste eguzkia* (Txalaparta) bere aurreneko nobelak planteatzen duen gai nagusia. «Memoriaz nahi izan dut hausnarketa batzuk egin, istorio baten bidez», azaldu du.

Beste eguzkia nobelan, eraikuntza enpresa baten proiektuaren aurkakotasunak batzen ditu Asunen bordako Domingo artzaina eta Alkabeherre herria okupatua duten gazteak. Artzain zaharrak ordezkatzeko duena berreskuratu nahi lukete okupek. Baina beste mundu batekoak dira, alderdi askotan: jokaeretan, bizimoldeetan, askatasunaren inguruko ikuspegietan, gauzak adierazteko eran...

Gaia «gaurkotasun handikoa» da, «Ipar Euskal Herriko ikuspegitik begiratuta bereziki, oso pil-pilean baitaude urbanizazioaren gaia, turismoaren gaia eta horiekin lotutako ekonomiaren ondorioak».

«Urjentzia bat dela iruditzen zait», dio Madinak. «Larritasun eta premia egoeran gaude, memoria galtzeko zorian. 'Behin saldua, saldu' esaten du kantuek etxeari buruz, baina erran daiteke 'behin galdua, galdu' memoriari buruz».

NAGUSITZEN ARI DEN EREDUTIK URRUN. «Artzainek egun Iparraldean egiten duten laborantzak ez du deus ikustekorik nagusitzen ari den ereduarekin», Madinaren iritziz, «eta haiek duten jakituria guztia galtzen ari da, galtzen ari dira haiek gauzak naturalki eta laborantza eskolen beharrik gabe egiteko dituzten gaitasun horiek guztiak».

Artzainaren ikuspegi idealizatuari ihes egiten saiatu da, haatik. «Oraindik hurbil dagoen jendea da, oraindik hurbil dugu artzainen bizimoldea, eta irakaspen handikoa izan daiteke hori guretzat. Arraildura bat dago haien munduaren eta gurearen artean, eta nik nahi nuke jakin zer modu legokeen bien artean zubia egiteko».

Edgar Morin idazlearen aipua du liburuaren atarian, egileak liburuari izenburua ezartzeko orduan gogoan izan duen aipua: «*L'autre soleil, la mort*» (*Beste eguzkia, heriotza*). «Itsutzen gaituen beste eguzkia, begiz begi, parez pare begiratzen ahal ez dugun beste eguzkia dugu heriotza», dio Madinak. «Beraz, kulturaren heriotza, memoriarena, gure izatearena. Horren inguruan nahi izan dut egin hausnarketa».

Nolanahi ere, liburua ez da gogoeta soila. «Ez nuen gogoeta bakarrik egin nahi. Gaurkotasunetik hurbil legokeen zerbait deskribatu nahi izan dut, eta egia izan daitezkeen gauzen inguruan egin dut fikzioa».

Liburuko pertsonaiak hiru ataketan sailka daitezke, egilearen iritziz: okupak; Domingo artzaina eta neska-laguna; eta UEUS Urruti-Etxarte-Ihalde Eraikuntza Sozietate Elkarteko arduradunak. Funtsean, Domingo artzaina da protagonista nagusia. «Gehienik harengan barnatu naiz. Okupak ez ditut garatu psikologikoki, baina haien bizipenak eta gogoetak jaso ditut».

Herrialde Katalanetan sortuaizanagatik, Urepelen bizi da azken urteetan Madina. Ikasketaz kazetaria da, eta *Euskaldunon Egunkaria*-n zutabegilea izan zen hainbat urtez. EIE Euskal Idazleen Elkartearen egiten du lan egun, elkartearen presentzia Ipar Euskal Herrian sustatu eta indartzen.